

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

**Alkatetzaren urtarrilaren 24ko ebazpena, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dauden eraikinetako tximinia garbiketa egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, norgehiagokaz bestelako prozeduraren bidez. 2023ko deialdia**

BDNS(Identif.): 672508

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/672508>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: [www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Onuradun izango dira erabilera legeztatua duten eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian kokatuta dauden eraikinen jabeak edo gozamenadunak diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta tximinia deialdian adierazitako epearen barruan garbitu badute eta dagokion eskabidea egiten badute.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdiaren xedea da elementu hori duten eta erabilera legeztatua duten udalerriko eraikinetako tximinien garbiketa aldiari behin egin dadin sustatzea, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalak, bere eskumenen esparruan, tximiniak garbitzearen kostuagatik dirulaguntza emateko prozedura arautzea.

Titular bakoitzeko eraikin bakarra lagunduko da diruz urtean.

Bi urtean behin bakarrik lagunduko da diruz eraikin bateko tximiniaren garbiketa.

Diruz lagundu ahal izango dira enpresa baimenduek tximiniak garbitzearen ondoriozko gastuak, 2022ko azaroaren 14tik 2023ko azaroaren 14ra bitartean egin direnak, gastu horietarako dirulaguntzarik eskatu ez bada.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70erainokoa izango da, gehienez ere 50,00 euroko mugarekin.

Gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaindituko egindako gastuaren ehuneko 90.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egingo dira, oinarrietan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2023ko azaroaren 15ean bukatuko da.

**Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Dirulaguntzaren eskabide normalizatua, behar bezala beteta, oinarrien I. eranskineko ereduaren arabera.

Tximiniak garbitzen aditua den eta garbiketa egin duen enpresak egindako fakturaren kopia, baita faktura ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*